

## Euskalerriko Leen-Gizakien eta Ireluen Bizilekuai Buruz Ikasgai eta Esaunda Batzuek

BARANDIARAN'GO JOXEMIEL

*Nere adiskide eta ikerlanetan laguntzaile  
on luzaro izan nuan Elosegí (Jesus) jau-  
nari atxegíñaz.*

Euskaldunak beren lurretako toki asko izentatzen dituzte, ustez eta leengizariak naiz ireluak euren bizilekutzat ustiatuak izan dirala-ta.

Toki orietakoak dira, adibidez: Okina'ko leizea. Lezao'koa eta Mairuelegorreta'koa Araba'n; Supelaur, Atxulaur, Axlor, Balzola, Silibranka, Anboto eta Santimamiñe, Bizkaian; Lezetxiki, Kobaundi, Aketegi, Sandaili, Muru, Agamunda, Gurutzeberri, Usategi, Armonitaitz, Malkorburu Ubedi, Txindokiko Marizulo, Aizpitarte, Gipuzkoan; Arleze, Lezaundi (Etxarri'ko sarietan), Albi. Putterri, Abauntz eta Sorginen-lezia, Naparroa'n; Arroribeltz (Askain), Lezia (Sara), Mondarrain, Laminzilo, Apanize, Auza eta Estragania'ko leizea, Ipar-euskalerrian. Auetako batzuek, guk dakigunez, leengizakien bizileku izan ziran, batez ere Santimamiñe, Axlor, Balzola, Mairuelegorreta, Silibranka, Lezetxiki, Sandaili, Usategi, Armonitaitz, Aizpitarte, Abauntz, Sorginen-lezea, Lezia eta Laminzilo.

**SANTIMAMIÑE.**— Kortezubi'ko lurretan, Ereñusarre mendiaren egoaldeko oñean dago **Santimamiñe** elizañoa. Leengizakien (Burdinarokoen) bizilekua izendako tokian eraikia, bertan arkitu izan ditugun lurrontzi-zatiak adierazten digutenez. Elizañoaren arresietan ageri dira artzabal batzuek erronkerako edergallu eta marrezturak dituztenak. Ara eramaten dituzte amets asko egiten dituzten umeak Mames santuaren bitartez senda ditezten.

**Santimamiñe** izenagaz adierazten degu, elizañoatik goraxeago dagon arpe bat ere. Izen aundikoa bera. An dago leengizakien aztarnategi garrantzitsu bat. Azken Paleolitos-aroko eta geroztiko gizakiak —erromatarren garaia artekoak— egíñiko tresna, iduri eta marrezturak ikasi ditugu toki artan. Mendez mende eldu zaizkigun esaunda batzuek ara zer diguten: «Leen-aroetan jentillak bizi omentziran Santimamiñeko arpean. Bein ango jentill-andra bat aur-egiteko omentzegon eta auzoko etxera —**Lezika** baserria— laguntza eskatu. **Lezika'ko** etxeakoandrea juan omen zitzaion. Aurra ondo etorri omentzan eta jentillek mairra deitu laguntzaille edo emainari. Janarietako bat, ogia, Lezika'ko etxeakoandrea arritu zuana: txuria bezain goxoa omen, eta berak zorroan gorde etxeoai erakusteko. Otordua amaitzean jentillak zutittu, baiñan gure etxeakoandrea ezin jeiki. Jentilleak diote: «emengo zerbait ostu al dezu?» Lezika'ko andreak aitortu egin bear: «bai, ogi puska bat gure etxe-koentzat gorde det». «Utz zazu ori emen» esan zioten jentillek. Utzi zuan eta jeiki zan. Arpetik irtetekoan, jentillek ogi aundi bat eman omentzioten, berak eta bere etxeoak jan zezaten.

Arberua'ko Donamartiri'n diote gertaera ori **Laminzilo** edo Isturitz'ko arpean jaso zala; emaina berriz an ondoko **Otsazelai** baserrikoa zala.

Xareta-lurraldekoak —**Axulai** eta **Larrun'en** tartekoak— diotenez berriz, Zugarramundi'ko

**Sorginen lezea'n** gertatu omentzan ori, eta emaina an inguruko **Lekuberri** baserrikoa omen.

Santimamiñe'ko arpea leen- gizakien aztarnategia baita, an azken Paleolitos-erotik asita geroztiko mallaetan agertu dira itxasari asko, beste arpetako aztarnategi geiagotan bezala. Arri oriek oroitarazten digute Euskalerrian gaurdaño iritxi zaigun oikunde bat: zenbait arpe edo leizeren ateka-aurrean dijoanak arria barruna jaurtikitzea. Ala, adibidez, Zilbeti'n eta Erro'n; baita Ataun'en ere, itz auek barrungo ireluari esanaz: «au iretzat eta ni Jainkoarentzat».

Arrien orde arpeetan txanponak botatzeko oitura sortu zala dirudi. Menastagaraiaz gero, batez ere erromatarren garaian. Agian ori adierazten digute Santimamiñe'en, Sagastigorri'n, Kobairada'n, Solakueba'n eta Isturitz'ko Laminzilo'n, an-emen sakabanaturik, agertu diran aldi artako txanponak. Gaur ere berdin egiten dute erromesak. Bidarrai'ko Arpeko-saindua'n, an barrun aldera, iñork ez irixteko lekura, txanponak jaurtiz. Elizaño askotan da oraino atetik barne-aldera txanponak botatzeko oitura zerbaiten eske.

**AXLOR** edo **AXLEGOR**.—Izen au duan arpe bat dago Dima'ko **Urrustei** mendian. An jentillek bizi izan zirelako esaunda ba-da inguruko auzoetan. Mustier-aroko aztarnategi ederra beintzat bere atekan eta barnean agertu genduan 1935<sup>o</sup> urtean eta geroztiko azterketen bidet. Ondoan dago aitz bat arranbel baten kidekoa. Azpitik doa gurdibidea, Indusi'tik Balzola'runtz. **Jentilzubi** deitzen diote, ustez eta an ibiltzen zirala jentillak.

**BALZOLA**.—Axlora baiño gorago ageri dira Balzola'ko arpearen atekak. An barnean, goiko atekatik urbil arki ditazke **Madelein** eta **Axil**-arotako leen-gizakiek lagatako azterrenak. Inguruko lagunak diotenez, **Sugoi** izeneko suga aundi baten iduriko irelu bat bizi oi omentzan leenago arpe ortan.

**MAIRUELEGORRETA**.—Gorbea mendiko arpe aundi bat da **Mairuelegorreta**. Leengizakien aztarnak —Neolitos arokoak?— billatu zituzten an Murgia'ko lekaideak orain dela 75 urte. Esaera ba-da, an bizi izan zirata aspaldi jentillak eta barrungo zokoetan berealdiko diru-pillak laga-ta ill zirala. Baiñan Gopegi'ko eta inguruetako lagunak azterketa aundiak egin arren, dirurik ez omen zuten arkitu.

**LEZETXIKI, KOBABUNDI**.—Auek dira Arrasate-Garagartza-ko Bostate mendi alboan dauden bi arpe. Bata bestearen gainean. Bien artean beste arpetxo bat: **Laminen-eskaratza**. Leen-arotako aztarna asko agertu ditugu or, batez ere lenengo arpean. Emen bizi izan dira gizakiak, Mustier-arotik asita geroztiko aldietan.

Garagartza'ko lagunak digutenez, lamiñen bizilekuak izan omen dira leize oriek. Ara emen zer dion esaunda batek.

Garagartza-Korrione'ko motil gazte batek, Kobaundi-inguruan zijoala, leize atekan neskatilla eder bat ikusi omentzuan eta berarekin itz egin eta beragaz itxutu. Baita biak ezkon-itza elkarri eman ere; baiñan leenik neskatxaren adina motillak asmatzekotan. Motillak bere auzoko andra zaar bati galdetu ea Kobaundi'ko neskatilla ederrak zer adin ote zuan. Andra ori, Kobaundi-aldera juan, eta an, arpe aurrean, atekari atzealdea emanaz, makurtu eta, bere anka bien artetik burua atzeruntz aterata, arpeari begira jarri. Ba-dator ango neskatxa eta, aurrean alako ikusgarria arkitzean, arriturik dio: «nere biziko eun da bost urte auetan ez det olakorik ikusi». Andrea bereala itzuli omentzan Korrione'ra eta motillari esan Kobaundi'n entzun zuana. Orduan neskatillaren adina azaltzen dio motillak berari, ustez eta ala eskontzen al zirala. Baiñan motillaren amak dio semeari: «begira leenik nolako oiñak dituan arpeko neskatilla orrek». Arpera juan eta motillak ikusten dizkio oiñak neskatxari eta gero amari dio: «Kobaundi'ko neskatxaren oiñak aatearenak bezatakoak dira». Orduan amak: «ori ez dek gizakia, lamiña baiño; orrekin ezin ezkontzen al aiz». Motillari bere barruna arrunt belundu omentzian eta gaixotu; baita laster ill ere. Arpeko lamiña Korrione'ra, gaubela egitera, jetxi omentzan eta, intxaurraren azaletik atera zuan maindire batekin bere maitearen soina estali. Illa elizkizunera eta ehortzera zeramakiela, lamiñak ere lagundu omentzian Garagartza-ko elizaterano. Andik bere arpera gero, negar da negar.

**JENTILLETXEETA**.—Motriku'n dago **Jentilletxeta**, Arrigorri izeneko mendi baten gaña, eta bertan iru arpe edo jentilletxe: bat sartaldean eta bi (ia alkarri lotuak) sortaldean. Bi auetan batez ere leengizakien aztarnategiak badire, dirudienez Neolitos-arokoak, bearbada gerogokoak.

Inguruko lagunak diotenez, arpe orietan jentillak bizi omentziran. Aldi batean ara biltzen omentzan orietako bat —artzaia— bere artaldearekin. Bein aldameneko eskortan ardiak jezten oiuka eta txistuka ari zala, suga txiki bat ikusi omentzuan ondoan eta esne pixka bat eman edaten berari. Urrango egunean ere txistuka jezten asi zelarik, sugea etorri eta artzaiak esnea eman. Eta berdin andik aurrera eguneru. Baiñan geroago artzaia lekuz aldatu bearrean gerta omentzan eta urrutira juan bizitzera. Urte askoren buruz ordea, lagun batzuekin, bere gaztearoko toki auei ikustaldi bat egitera etorri omentzan.

**Jentilletxeeta'ra** irixtean, sugeazaz oroitu eta txistuka asi. Bereala suga aundi bat agertu omentzan eta artzaiaren ofetatik gora, kueztan-kueztan soña lotuaz, leporaño igo eta bere aldi bateko ongillea ittota utzi omentzuan.<sup>(1)</sup>

**USATEGI.**—Ataun'go **Itandiet**a aitzean dago **Usategi'ko** arpea, **Urrestarazu** baseritik gora urbil. An ba-dago Gravette-aldiko aztarnak dituan lurmalla bat; baita beste batzuek Neolitos eta Burdin-arokoak ere, dirudienez.

Bestalde, artzaiak luzaro erabilia da arpe au artedi bezala. Esaunda batek dionez, an egoten omentzan irelu bat ere zezen gorri baten idurikoa, eta inguruko lagunak, arpe aren aurrean zijoatzelarrik, bakoitzak arri bat aurtikitzen zuan barruna esanaz: «au iretzat eta ni Jainkoarentzat».

**ARMONTAITZ.**—Ataun'go Ayarre baserriaren guenean, Urkillaga'ko gurutzetik Maumendi'ra dijoan bidearen ezkerrean daude **Armontaitz** edota **Amortaitz** izeneko armallo bat eta arpe bat. Arpe onen barruan arkitu ditugu Burdin-aroko lurrontzi puskak. Atekatik bertan eskorta baten arresiak ageri dira: **Mendiurkullu** baserriko ardiak egoten ziran leku artan oraindik-orain arte.

Esaunda batek adierazten digu an bizi omen zirala jentillak leengo garaietan. Eta euretako emakume bat jexten omen zala **Ayarre'ko** baserrira soroko lanetan baserritarrai laguntzera. Baita neguko gauetan ere jexten omentzan Ayarre'ra, bertakoakin batean ardatzean lan egitera.

Kristaugoa edatu zanean alde auetan, jentill oriek arpearen barrungo zokoetara aldegin omentzuten. Gauetz ordea irteten omentziran

artediraño, eta gero egunez artzaiak an ikusten jentillen oiñatzak.

**Armontaitz** ingurura bat gauaz urbiltzen dalarik, entzuten omen ditu an, barrungo bizilekueetatik, eldu diran soñu ederrak —txistu, tronpa eta danboliñenak— eta oiue ezti eta atsegingarriak. Baiñan atekara iritxi ezkeru, dana ixiltzen. Esaunda au bera entzun izan degu andik urbil dauden **Ubedi'ko** eta **Malkorburu'ko** leizeezaz ere.

**AIZPITARTE.**—Errenderi'ko mendi ontan badira bost arpe lerroan, bata bestearen gañean. Leengizakien bizileku luzaro izan ziran. An bildutako lanabes ugari da Donostia'ko San Telmo izeneko museoa. Arpe auei buruz inguruko baserritarrak diote oso luzeak dirala: or sartu zan besauntz batek Oyarzun'go **Arandan** baserrian adarra atera omentzuan; auntz bat arpe auetako batetik **Aizpitar**te baserriko sukalderaño lurpez iritxi omentzan. Esan oi dute au ere: leengo aldietan eta ia orain arte, jentillak bizi izan zirala arpe auetan; gauaz mendira irteten zirala eta eizean ibili eta egunaz leizeetako barne-zuloetan bildu.

**ABAUNTZ.**—Ulzama Arraiz'ko mendia da **Abautz**. An ba-da arpe bat, leen-gizakien bizileku izana. Ulzaman esan zidatenez, zulo artan **lamiña** izeneko ireluak egoten omentziran. Arraiz'ko Sunbillanea'n bizi zan artzaiak eguneru eramaten omentzien kaiku-esne bat edo gaztanbera oparizat.

**AKELARREN-LEZEA** eta **SORGINEN-LEZEA.** Zugarramundi'n bada leize bat lau ateka ditua. **Sorginen-leze** deitzen diote errialderuntz (sortalderuntz) begira bere ateka daukan leze-zatiari; **Akelarren-leze** egoalderuntz ateka daukanari. Ateka onen aurrean dago **Akelarre** izeneko zelaia. Bi leize orietako zorian leen-gizakien aztarnak —lanabesak eta lurrontzi-puskak— arkitu nituan aspaldi.

Zugarramundi'n ba-da esaera lamiñak bizi izan zirala leize ortan. Emen ere, esaunden arabera, lamiña bat erdialdian zegola, auzoko **Lekuberri** baserriko etxeoandreaki dei egin omentzion emagintzarako, Santimamiñeko jentillak bezala. Aurra jαιο ondoren, lamiñak urrezko kiloa eta ardatza eman omen ziotzan saritzat emaginari, esanaz etxerakoan etzezala gibelerat begiratu. Emagiña irten omentzan eta, bidean zijoala, arraots aundiak gibelean entzuten. Eta bere etxera iritxi zelarik, zango bat sartzean, bestea sartu gabe, begiratu atzealdera; bere gauzen erdiak kendu omen-

(1) J. M. de Barandiarán: *Obras Completas*, tomo III, págs. 379 y sigs.

tziozkaten.

Esaera ba-da Akelarre'ko zelaian sorgiñak beren billerak eta dantzak erabiltzen zituztela, eta leizean berriz debruak, akerraren idurian agertu eta sorgiñai nolako gaiztakeriak egin irakasten ziela.

Urtean bein —erriko jaien laugarren egunean, Dagonillaren 18n— **Sorginen-lezean** Zugarramurdi'ko zaarrak biltzen dira. Auetako batzuek goizean iltzen dituzte leize ortan aari bat edo bi, eta bertan su egin da erre. Eguerdian biltzen dira an zaar guztiak eta euren artean banatzen dute adagi errea eta jaten ogiakin eta ardoarekin. Bakoitzak berea ordaintzen du. Gero, elkarri eskuak emanda, lerro luzean juaten dira erriko apezetxearen aurrea. An elkarrekin dantza egin eta ondoren erriko enparantzara juan eta bertan soka-dantza egitearekin amaitzen dute jaiak.

Esaundak dionez, arpe ontan **Etsaiak** omentzuan ikastola eta Axular or eskolatua omen.<sup>(1)</sup> **LEZIA.**—Sara'n, beren lurraldean dan arpe aundienari, **Lezia** deitzen diote. Ere mu zabal eta luzeak ditu barnean. Leen-gizakien aztarna asko zan emen (Auriñak-aldikoak batez ere) alik eta bere zoruko lurra —aztarnategia— arperako bidea egiteko eta barruan urgeldi bat eratzeko, atxurtu eta andik atera zuten arte.

Esaera da an barnean bei bat bizi dala edo irelu bat bei idurian, eta Sarako aldetik Etxalarre-raño juaten dala arpetik irten gabe. Nere Sara'ko txosten-emailleak esan zidan, bere ama bein aizparekin Lezia'ra juan zala ongarrilla. An ari zirala, barnean entzun omentzuen zintzarri-otsa, beien zintzarriarena bezalakoa. Arrunt izitu eta lasterka irten, omentziran andik.

**Etsaiak** Axular eskolatu zuen ikastola emen. Lezia'n, zala ere ba-da esaera.

**LAMINZILO.**—Izen onekin Isturitz'en, Donamartiri'n eta inguruko beste errietan adierazten dute, leen-gizakien ikerleak **Isturitz'ko arpea** deitu izan dioten leize ospetsua. Millaka urteetan or bizi izan ziran lagunuen aztarna asko arkitu dituzte barnean azterlariak; baita, bere labarrietan, erreno, artz, elefas, zaldi bison eta auntzen iduriak ere.

Orien eguarats edo gogo-jazkera bezala ageri zaizkigu bertako auzunetan, «Laminzilo»

(1) Axular (vid. J. M. de Barandiarán, *Obras Completas*, I, P. 44).

izenetik asita, oni loturik dabilzan sinismen eta esaundak. Izenak bai, izenak aski adierazten digu arpe ura laminen bizileku izan zalazko ustea ba-dala. Laminzilo'ko lamiñari buruz eta auzoko **Oxazelai** baserriko etxeoandeari buruz, emen ere ba-da Santimamiñe'ko eta Akelarren leze'ko lamin aurdunagaz eta emainagaz aipa degun esaunda. Baita beste esaera au ere: Laminzilo'tik Donamartiri'ko **Gatzelu** jauregiraño ba-dela lurpean bide bat.

Beste leize asko jentillen, baxajaunen eta ireluen bizileku bezala aipatuak dira esaudentan: Okina'n (ireluak, zezen-gorrien, aarien, ardien eta beste iizien itxuran); Lezao'n (amilamiak); Egino'ko jentillen arpean; Jentilzulo'n (Orozko'n); Supelaur'en (Mari eta bere laguntzalleak arranbeltzen idurian); Atxulaur'en (ildako bat zezen suzkoaren idurian); Anboto'n (Mari, emakume antzean); Aketegi'n (emakumearen eta aariaren itxuran); Murumendi'n (emakumearen eta auntzaren idurian); Ataun'go Agamunda'n, Askaata'n, Sugaarzulo'n Ubedin eta Saasterri'n (emakumearen, txaal-gorriarren, suzko-zezenaren eta zaldi zuriaren itxuran); Armontaitz'en eta Malkorburu'n (jentillak); Layene'n eta Etxarriko lezea'n (jentillak), Putterri'n (irelua zaldi zuriaren idurian), San Migel Aralar'ko iraunsugea; Askain'go Arrobbeltz'en (Mari emakumearen idurian); Mondarrain'en (lamiñak eta beste ireluak sugearen idurikoak); Ahuski-Estragania'n (erensugea).

Arpe eta leizea'k ez ezik, lurgainean ageri diran leen-illarriak —trikuarriak, arrespillak eta arluze edo menhirrak— eta aldi aietako bizilekuen oroi batzuek ere esaundaz inguratuak iritxi zaizkigu.

Elvillar izeneko erritik urbil dago **Chabola de la hechicera** izeneko trikuarria. Esaera da, an Donibane goizean, eguzkiaren irteeran, gaizkin edo sorgin bat agertzen dala.

**Arrizala'ko** trikuarriaren arriak, esaundak digunez, Lezao arpeko sorgiñak edo **amilamiak Atokolarri** mailloetatik iruten arituaz ekarri omen zituzten euren liñai buruetan.

**MARILUXEKO-HARRIA.**—Euskalerrriaren beste egalean —Behorlegui-Armiaga'n— dagon **Mariluxe'ko-harria** trikuarri bat da. Bere iru arri aundienak **Mairi** emakume batek ekarri omen zituan, iruten ari zala; bat buruan, bestea galzarbean eta irugarrena mantalean. An, bar-

nean, omen daude leengo gizakien ezur eta errautsak. Esaundak dionez, toki artan biltzen omentziran lagun asko eta beren sinisteari begira bertan erretzen, arri auen azpian beren errautsak gordetzeko. Ba-da esaera ere **Marixuleko** illarriaren azpian ba-dala eskila bat urrez betea; baiñan iñork ez atxeman oraino.

**MAIRIETXE.**—Mendibe'ko **Gaxteenia** baserriko lurretan dagon trikuarria da **Mairietxe**. Esaera danez, illarri onen gainarria **Mairi** izeneko emakume irelu batek, iruten egiñaz, bere buruan ekarri omentzuan **Armiaga** menditik.

**ARANeko-ARRIA.**—Trikuarri baten arlosa eta bera dagon zelaitxoaren izena da **Araneko-arria**, Orozko inguruko mendian. Erri ontako baserri bat da **Arane**. Emengo neskatx bat Gorbeia mendira igo omentzan bere ardiak biltzera. Laño itxi batek artu omentzuen eta bideak galdu. Artan gaua iritxi. Otso batzuek etorri eta neskatxa jan. Etxekoak egun askoz ibili omentziren, ara eta ona, beren neska billa. Azkenean **Araneko-arrian** aren buruko illeak agertu. Orain zutik dagon trikuarriaren arluzeak oroierazten du gertakizuna.

Esaunda au bera, naizta lekuan lekuko mendi, illarri eta etxeai lotua, bildu nuan beste toki batzuetan ere. Adibidez, Errioxa'ko **Larrea** mendin, Eterna erriko neskatilla bati gertatua; Lazkau'ko **Urbarandi** mendin, Amoskategi baserriko neska bati jazo eta oraindik an dagon illarri biribillak adierazten duana.<sup>(1)</sup>

**JENTILLETXE.**—Izen onekin adierazten dituzte Ataun-Lauztierreka auzunean Altzani'ko eta Ataun-Burunda'ko trikuarriak. Auetako batean (Balenkalekukoan) omen daude ehortziak azkeneko jentillak, dio esaunda batek. Auek ikusi omentzuten lenengo lañoa ostrian. Euren arteko zaar bat jarri omentzuten ari begira, ikusgarri ura zer ote zitekean galde egiñaz. Jentill zaarrak bereala esan omentzien: «gureak egin dik». Kristo jaio zala alegia eta jentillaroa azkentzera zijoala. Jentill aiek an, Balenkaleku'ko jentilletxean sartu omentzien.

Esaunda bera Aralargo artzaiak agertu zidaten leenago, ustez eta mendi artako jentillai gertatua, ango trikuarri **Jentillari'ren** in-

guruan. **Kixmi** izenagaz Kristo adierazten zuten, eta euretako batek beste lekuetako jentillai Kixmi'ren jaiotza argitaratu omentzien. Ura izan zan beraz leenengo Olentzaro?

Euskalerrian beste bost erritan esan digute, esaunda orrek diona beren tokietan gertatua dala.

**BERNO.**—Ataun-Burunda arteko mendiaren lepo bat da **Berno**. Ba-da an trikuarri bat. Bere arlosa bat, oraindik zuti dagona, mugarriztat Ataun'ek eta Urdiain'ek eduki dute. Ba-dira trikuarri gejiago ere mugarri tokizatuta izan diranak. Toki ezagunak baidira. Arri bakar bat, ezaugarri aundi bat inguruan ez duana, aiseago alda lezake lurra ostu nai duan batek. Ala gerta zan, diotenez, an urbilleko mugarri batekin, Irumugata'koarekin alegia. Batek aldatu omentzuan tokiz. Iñor ez omentzuan oartu. Baiñan aldatzallee il zalarik, gauaz ots bat inguru aietan entzuten omentzan: «Irumugatako mugarria, nere animaen galgarria! Nun sar, nun sar?». Ango artzai eta basogizonak, bildurtuak deadar oriekin. Gau batez, ordea, batebatak erantzun: «Sar zak atera dedan tokian». Urrengo egunean mugarria orain dagon tokian agertu omentzan. Geroztik ez omentzan otsik entzun.

**URREZULO'KOARMUREA.**—Ataun-Arantzazumendi'n, Atxurbi izeneko gaintxabalean, dago arripilla edo armura au. Trikuarria bera ere. Beraren azpian idinarru bat erre dagola esan oi dute inguruetako lagunak. **Urrezulo** diote noski, an urrea badala uste dutelako eta azpiko aitzia zulatua dagolako.

Zertarako zulatu ote zuten trikuarri onen zorua? **Kalamuako** trikuarriaren azpiko arkaitza alaxe sakondua dago. Berdin **Kuutzebakarre'n**, **Aizkoin'en**, **Atxolintxiki'n**, **Iruya'n**, **Keixeta'n**, **Maurketa'n** ere. Azkeneko sei trikuarri auek Elosua-Plazentzia mendietakoak.

**TARTALOETXEETA.**—Izenonekinezagutzendegu Zegama'ko **Saadar** mendigañeko zelaia. An dago trikuarri bat: **Tartaloetxe** deitzen diote.

An bizi omentzan aspaldi **Tartalo**, inguru aietako lenengo artzaia, begi bakarra bera. Andik beerago, **Antimuño** baserria. Emengo anaie bi jua omentzien bein eizera; baiñan eguraldia oso txartu eta eraso batetik igeska zijoatzela, **Saadar'en** txabola bat ikusi eta bertan sartu. Andik laster baita ardi mordoska bat ere eta atzetik gizon bat begibakarra Tar-

(1) Barandiarán, J. M. de: *Jentilbaratzatik Zaho'ra mendiz-mendi* («Lekuona'tar Manuel jaunaren Omenezko Idazki-Bilduma», l. 61 or., Tolosa, 1977).

taloa. Onek, sartu zalarik, arri aundi bategaz atea itxi omentzuan. Bereala, **Antimuño'ko** eiztariak begira, au esan bati: «i, gaurko»: eta besteari: «i, biarko».

Andik laster, «i, gaurko» esan zionari burrunzia sartu, sutan erre eta jan. Orrela apaldu omentzuan. Ondoren, lurrean etzan eta lotan jarri.

**Antimuño'ko** beste anaiak omentzion bere baitan: ni biar jango natxook, baldin bera iltzen ez badet». Artu burrunzia, sutan guritu eta Tartalo'ri begian sartu omentzion. Begian burrunzia zuala eta erabat itxu, Tartalo jeiki omentzan eiztariaren billa; baiñan alperrik: eiztaria ardi tartean izkututzen.

Goizean Tartalo, atea idekita, zankoak zabalik, auen artetik bere ardiak banaka ateratzen asi omentzan. Eiztaria berriz, bizkarrean ardi-narru bat zuala, Tartalo'ren zango artetik mendira irten. Tartalo laster oartu eiztaria igesi juan zala eta onen abarka-otsetara abiatu jauzika. Eiztaria amilka iritxi omen beeko ibaira eta bertan sartu eta igerika iragan beste aldera. Tartalo ere ibaira; baiñan igerika ez jakin, eta bertan itto.

**IRUKUUTZETA.**—Izen onegaz adierazten dute Elosua'n mendi-tontor bat. An dago Bergara'ko, Elgoibar'ko eta Azkoiti'ko lurren mugarría, eta bere ondoan trikuarri bat. Illarri ontan urrezko dunba bat dagolazko esaera da inguruko errietan. Lagun batzuek asi omentzien illarri ori atxurtzen dunbaren billa; baiñan barrundik mamutzar bat irten, soina gizakiaren antzekoa, bekokian adarrak eta zangoak auntzarenak bezalakoak. Urrebillariak izaturik igeska juan omentziran.

**ZIÑEKO-GURUTZE, OBIONETA, GAZTELUETA.** Lenengo bi toki orietan —Aralar'en— trikuarriak daude. Aien ondolik igarotzeko asmoan zijozten artzaiak bertara arri bana botatzeko oitura zuten gaurdaño, ustez eta egintza oriango illen aldeko otoitza zala. Gaztelueta'ko zelaian —au ere Aralar'en— muñotxo bat dago ipar-aldeko egalean, eta arri bat zutik egoaldean. Gauaz illargi betean ara juaten omen ziran inguruko lagunak eta bakoitzak muñotxoan arri bat utzi opari bezala. Tuteratik Monkaio mendialderuntz ere ba-dira orrelako muñotxo edo armurak eta an dabilzanan arriak botatzen dituzte aietara Salbea esa-

naz.<sup>(1)</sup>

**MAIRUBARATZ, MAIRUILARRI, IRUÑARRIAK** edota **MAIDEKORRAL.**—Izen auekin ezagutzen ditugu Burdin-aroko kronlech edo arrespillak. Orietan lurperatzen zituzten ildakoen errautsak. Zugarramurdi'ko **Ibañeta** lepoan ba-da orrelako arrespil sail bat. Inguruan zebiltzan lagunak ba-zuten ango ildakoen alde otoitz egiteko oitura. Toki batzuetan diotenez, Intxi-xuak —gizon-sorgiñak— omentziran Mairuilarrietan ehortziak (Oyartzun).

\* \* \*

**ARLUZEAK.**—Euskalerrian ageri dira oraino, an-emen, menhir antzeko arluze batzuek: geienak leengizakien bizilekuen eta illarrien inguruan.

Orietako zenbaitegaz esaundak ba-ditugu gure errietan. Aralar'go **Alotza** izeneko zelaitxoan arluze bat dago etzanik; iru metro luzean bere neurria eta gaiaz arrauka-arria. Izena **Saltaarri**. Jentill batek Murumendi'tik arri aundi bat bota omentzuan, asmoz Salamanka'runtz. Bidean bi puska egin: bat **Ausagazte-lu'n** erori omentzan eta bestea **Alotza'n**. Au omen da **Saltaarri**. Onen ondoan dago pelotaleku bat; baita dantzaleku ere. Emen jentillek dantzan egiten omentzuten illargi betean, bakoitzak bere **errañuarekin** (Zaldibia). **Errañua** gizakiaren itzala da. **Itzala** argitan dagon gauza batek botatzen duan illun-uneari esaten zaio. Gizakiarenari, **errañua**; inoiz baita orain abereenari ere (Goierri). Ildakoak edo izugarriak **errañuaren** tankeran agertzen omen dira eta gerixetia deitzen die (Orozko). Bizkain, zenbait tokietan, **gerixetia** gizakiak eta abereak egiten duten itzalari esan oi diote (Muxika, Lekeitio).

**Mateo-txistu** eiztaria, beti munduan zear dabilleenaren **errañua** ikusten omen da gauean illargietan (Ataun).

Etsaiak **errañua** kendu omentzion bere ikasle Axular'i, ikastolako atekan (Sara).

Sorgiña zauritzeko bere **errañua** jo bear zaiola diote leku askotan (Goierri).

**ATA'KO ERROLDAN-ARRIA.**—Arri au Madoz erritik San Migel aldera, **Ata** izeneko zelaiaren sarreran dago zutik, neurria iru metro luze; geiena ordea lurrean sartua. Ba-du, giza-

(1) Pedro Arellano: *Folklore de la Merindad de Tudela* («Anuario de Eusko-Folklore», vol. XIII. pp. 147-218).

tankera zerbait. Alde batean dauzka sei ildo marraztuak. Diotenez, Erroldan'ek San Migel' go santutegiaren ondotik bota omentzuan Madoz'ko erria puskatu naiean. Baiñan bera botatzean, soñeko-egala lotu besoari, eta indarra ttikittu. Orri esker, arria erdibidean erori. Sei ildoak Erroldan'en beatz-askaak omen dura.

**ERROLAN-ARRIA.**—Leiza'ko **Ariz** izeneko mendian dago **Belarzinketa** dalazko larrelekua. An bada leize bat —**Errolanen-leizea**— eta bere ateka ixten duala arluze bat etzanik, 2,80 m. luzean eta 0,40 zabalean bere neurria duana. Iru ildo edo erreten, aski sakonak, zearka ageri ditu, itzulian egiñak. Aizaran menditik aballaz Errolan'ek jaurtia omen da Aralar alde-runtz, San Migelen eliza puskatu asmoz. Baiñan arria irteteko une-unean, aballa ausi eta arria **Belarzinketa'n** erori.

**IRUÑARRI.**—Erasun'go **Ugazlarre-mendi'n** dago rutik arluze bat argorrizkoa. Bere izena Iruñarri. Ezkurra'n nebillela esan zidaten Beruete'ko Otsola menditik Sanson'ek jaurti omentzuela.

**MORMAK.**—Los Arcos deritzan errian dago **Yaniz** izeneko toki bat, Bizente santuaren elizañotik urbil. Toki artan ba-ziran, orain dela urte gutxi arte, iru arzabal aundi zutunik. Bakoitzaren neurriak: 2 metro gora, 1,05 zabal eta 0,30 lodi. Goiko ertza edo burua arranbel kidekoa zuten.

Esaundak dionez, ama bat bere iru alabakin an ondoan ari omentzan sorolanean. Aipa

degun elizañoan, dunbak edo joaleak mezatako deia egin; baiñan iru alabak mezatara ez juañan. Orduan amak birao egin esanaz: «arri biurtuko al zerate». Eta bereala iruak arri biurtu. Auek dira iru «Mormak».

Beste esaunda batek digunez, alaba oriek oso ezikaitzak omentziran. Iñautzietan izugarrizko jostaketetan ibili ondoren, oraino igande arte ala jarrai nai. Amak orduan birao egin eta iruak arri biurtu.

\* \* \*

Ez da errez aipaditugun sineste, esaunda eta oikundeak noiztikoak diran jakitea. Batzuek, ordea, aro jakineko zenbait egintzakin lotuak datorzkigulako, ze garaitan beren ibilaldian asi ziran asma gentzakela dirudi. Arriak oparizat ireuai eskaintzea, ba-liteke zaarretako oikundea izatea; askoz geroztikoa, bear bada Burdinarokoa, txanponak elizañoetan eskaintzea.

Zaarretakoak agian, leizeetan zezen-gorrien, zaldi zurien, euntzen eta beste iizien iduriko ireluak bizi direlazko sinestea ere.

Gerogokoak, Neolitos-arokoak bear bada, illargi beteko dantzazaz eta Ekain edo Donibane eta trikuarriezaz aipa ditugun zenbait siniskera eta egintza.

Gerogokoak oraino gerixetiei buruz esan ditugunak, erromatarren garaian iritxiak, dirudienez.

Azkenik berriz, Kixmi'zaz bildu ditugun esaunden sorrera.

Ataun'en, 1980<sup>90</sup> Abenduaren 5<sup>n</sup>.